

Esperimentua: Paper lehorra


❖ Manten al daiteke papera lehor uretan?

Hipotesia

(Hemen galderari buruz pentsatzen duzuna idatzi behar duzu, esaldia osatuz)

Materiala

- Iturriko ura
- Plastikozko ontzi bat
- Papera
- Edalontzi bat



Pausoak

Egiten hasi baino lehen, ondo irakurri pauso guztiak.

1. Bete plastikozko ontzia, hiru laurden inguru, iturriko urez.
2. Zimurtu orria, eta jarri estu-estu plastikozko edalontziaren hondoan. Erabili behar adina paper, eror ez dadin edalontziari buelta emandakoan.
3. Eman buelta edalontziari, eta sartu uretan. Eutsi edalontziari zuzen, inoiz ez okertuta.
4. Atera edalontzia zuzen uretatik, eta atera papera. Zer gertatu zaio paperari?



Emaitzak

Esperimentua egin ondoren gertatu dena.

Azalpena

Emaitzaren azalpena, zergatik gertatu da.



Hipotesiaren baieztapena/ezeztapena

Zure hipotesia bete al da?

